

GOGOZ KONTRA, SENDAGILE: TEMA LITERARIO EZAGUNA GEUREAN

Anjel Lertxundi

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos.
Año 39. Tomo XXXVI. N.º 2 (1991), p. 365-372
ISSN 0212-7016
San Sebastián: Eusko Ikaskuntza

Gauza jakina da Molière hiru tradizio literarioez baliatu zela, besteak beste, bere antzerkianak burutzeko orduan: *fablieux* deituriko testu frantsesetan, Italiako erreperrietan eta Espainiako tradizioan. Horien atzean, berriz, mendebaldeko nahiz ekialdeko tradizioak uztartzen dira: Boccacciok bere *Decameron* burutzeko iturri batetik nahiz bestetik edango du, eta italiarraren liburua ez da ederra ipuinen bilduma gisa bakarrik: ederra da, nagusiki, gaien (*thema*) konpendioa delako.

Thema gorabeheretan, Erdi Aroko tradizioan agertzen den gai usu bat emazte jipoitua-rena da. Senarrak emandako egurkaden mendeku hartzeko, senarra sendagile abil eta bizkorra dela esango du emazteak. Izkutuan gordetzen duen abilezia aitor dezan, egurkadak eman behar izaten zaizkiola. Alaba gaiso daukan jauntxo baten morroiek egurtu egingo dute senarra, honek bere “abilezia”ren aitortpena egiten duen arte.

Era berean, sendagilearen estereotipoa ere badaukagu, bigarren *thema* gisa: bere zientzian baldar denaren, gaisoak sendatu ordez, sanoak gaisotzeko kabal eta iaioa dugun sendagilearen estereotipoa. Barroko garaian estereotipo honek exito izugarria izan zuen: Quevedo eta Calderón, Molière eta Jean Rotrou... dira gaia jorratu duten garai bereko autore batzuk. Molièreren kasuan, betidanik sufritu zuen biriketatik eta gaitzak eszena gainean hiltzera eraman zuen, “Le malade imaginaire” errepresentatzen ari zela, hain zuzen. Gai bereko beste zenbait obra, hastapenetan exitoa eman zion “Lamour médecin”, “Le médecin volée” eta, ezagunena, “Le médecin malgré lui” ditugu, azken hau gaur hona dakarguna, eta aurreko bien refundizioa. Esan behar da, bestalde, sendagile klase honen estereotipoa ia bere obra guztietan agertzen dela

Atzera jo behar da, ordea, lehen iturriekin topo egiteko. Grezia klasikoa baditugu arrasto seguruak. Diogenes Laerziok filosofo zenbait hartu eta, haien inguruan anekdoteria korapilatuz, arketipo zenbait burutzea lortuko du. Tales de Mileto-ren kasuan, jakintsua eta despistea uztartuz. Heraklitorenean, medikuntza eta sanoen “garbiketa” lotuz. Platon-ek, berriz, filosofo negarti gisa pintatuko du Heraklito, eta tradizio berari jarraituz jokatu du Rubens-ek, Heraklito negarrez pintatuz, Demokrito barrezka... Gaiaren interesa lukeenak, materiale eder askoa dauka Julio Caro Barojaren “De los arquetipos y leyendas” liburuan.

Baina Grezia klasikoa estereotipoa tratatua izan baldin bazen ere, gauza seguruagoa da Molière-k Erdi Aroko tradiziotik jaso zuela eredu, eta ez Grezia klasikotik. Eskura zeukan aipatu tradizioa Molière-k XIII mendeko “Le médecin de Bray” eta “Le vilain mire” fablieau ezagunetan. “Pantagruel” en ere behin eta berriro agertzen zaigu estereotipo bera. Bosgarren kapitulu, adibidez, Pantagruel gaztea unibertsitatez unibetsitate dabilenean karrera desberdina frogatuz, Montpellier-eko unibertsitatera helduko da. Famatua zen garai hartan Medikuntza fakultatea eta bertan ikasia zen Rabelais bera. Unibertsitatean “Mirevalux-eko ardo onak eta konpainia ezin hobea” topatuko ditu, eta ondoren:

“Medikuntza ikasten hasi zen, baina gero lanbide hura triste eta melankoniatsuegia zela erabaki zuen, eta sendagileek labatiba usaina zeukatela deabru zaharrak baitliran”.

Fablieau-etara bueltatuz, han Bray-ko sendagile izenik gabea genuena, Sganarelle izeneko egur biltzaile bihurtu da Molière-renean. Egur biltzaileakemaztea jipoitu ohi du. Andreak, mendekuaren gogoz, esango du senarra medikua den arren, ez duela inor sendatzera prestatu nahi izaten, baldin egurkada batzuk ematen ez bazaizkio. Honela bakarrik lortuko du Géronte jauntxoak Sganarelle saia dadin jauntxoaren alaba mutua sendatzera.

Alabaren mututasunaren atzean hirugarren gai edo thema bat izkutatzen da: Leandre-rekin maiteminduta dago neska, baina Gérontek ez du ezkontzarako baimenik ematen, Leandre behartsuegia dela erizita. Baimena lortu ezin eta neskak mutuarena egitea erabakiko du. Hartaz jabetzen denean egur biltzailea, bi gazteak ezkontza bidean jarriko ditu, aita bera ere hartara presta dadila konbentzitu ondoren.

Molière-ren testuaren bertsio borobila tajutu zuen espainolez Leandro Fernández de Moratín-ek. Itzulpena baino gehiago, egokipen lana burutu zuen idazle neoklasikoak, pertsonaien izenak ere espainol tradizioa egokituz: Bartolo (Sganarelle), Jerónimo (Géronte)..

Elissamburu-ren bertsioa

Jean Baptiste Elissamburu-ren “*Piarres Adame*” ibiltari nobela bat da, eta jeneroaren tradizioa, ipuinak, pasadizoak, kontuak tartekatzeak aitzakia aparta. Hamabost urte inguruko mutiko batek Azkaingo bidean topo egingo du Piarres Adamerekin. Bidea elkarrekin egitera deliberatuko dira. Denbora pasa hasikozaio Piarres Adame kontu, ixtorio eta pasadizoak kontatzen Pella izeneko mutikoari. Hala, liburuaren seigarren kapituluan, Oletako ostatuan ikusiko ditugu Piarres Adame eta haren ibilgo lagun den Pello —liburuko narratzailea— olgetan eta kontu-kontari. Hurrengo eguneko bazkal ondoren arte ez dute bidera berriro lotzeko asmorik, eta lotarako ere presarik ez dutenez, Piarres Adamek dio Pellori:

—Beraz muthiko prestu bat haizela, erranen darozkiat bihar, bidean nere gaztetasuneko hitztorio eder bat edo bia. Orai nahi baduk, lokhartu baino lehen adituko duk bat laburra, bainan egia, eta gerthatu izan dena Espainian, Madrileko ondoan. Idekzatzik beharriak, Pello, eta ez hadila lokhar.

Loa heldu aurretik Piarres Adamek Pellori kontatzen dion ixtorioak “Don Pacheco eta doña Incarnacion” titulua darama. Madrileko Buen Retiron garatzen da istorioa, eta leku horretan bi senar-emazte bizi ornen ziren garai batean. Senarrak Pacheco du izena, emazteak Incarnación. Pacheco “esku zalukoa” dela esango zaigu eta “bere burua etxean fierkisko errespetarazten” duela. Alegia, etxean errespetoa jartzeko modu usua emaztea egurtzea duela Pachecok. Emazteak, doña Incarnacion-ek, (“izan balitu besoak eta eskuak hain azkar nola baitzuen mihia abil!..”) mendeku hartu nahi luke (“Ago, ago, Pacheco” ethorriko duk orena, hik ere hartuko ditukana hireak eta asto beltzarenak!..)

Goiz batez, doña Incarnacionek Doña Resurreccion, erregeren alaba, ikusiko du parkean “hiltzeko menean, bezperan oilasko hexur bat zintzurtean gelditurik. . .”.

Erregeren jauregira joan eta doña Incarnacion-ek jaun lekaioari hitzegingo dio erregeren alabarentzat erremedio segurua balukeela esanaz:

—Jaun lekhaioa, orai berean ikhasi dut doña Resurreccion, gure prinzesa maitearen bizia irrisku handian dela, oilasko hexurtzar bat dela medio; ez ornen baita ere denborarik galtzeko,

horra zertako ethorri naizen, jauna, zuri erratera badela, Buen-Retiron berean miriku bat hainitz ahila; hezurretako gauzetan beriziki hainitz aditzen zaiona; neronek frogatua dutalaketoz behin baino gehiagotan, mintzo natzaizu hola... Miriku horrek izena du Pacheco. Erran behar darotzut ere, yauna, miriku horrek ez duela aithortu nahi mirikua dela.

Zer segitzen den asmatzea ez zaio zaila suertatuko irakurleari: Pacheco jaunak bihotz onez obeditu nahi izango ez balu, eta uko egin nahiko balio bere sendagile *kondizioari*, garbi uzten dio doña Incarnacion-ek jaun lekaioari egin behar luketena:

—Lau edo bortsu gizonen makhila mehetto banekin, eman dezotela zurra-aldi bat ona, eta ikhukis duzu nola sendatuko duen erial...

Pachecori deituko dio erregekalaba senda diezaion. Pacheco harriturik dago. Ez du ulertzen eskatzen zaiona. Nola senda dezake erregeren alaba edo besterik, midikua ez baldin bada...

Jaun lekaioaren agindura, Pacheco egurtuko dute erregeren borrarok. Doña Resurreccion printzesak Pacheco jipituaren oihu eta karraxiak entzungo ditu alboko gela batetik. Galdetu zer gertatzen den eta kontatzen diotenean, “kar-kar-kar” hasiko da barrezka, eta, hala, oihasko hezurra jaitsiko zaio zintzuraren beheara, erabat sendatuz. Pacheco ohorez eta diruz sari-tuko du errege...

Pertsonaiak (Sganarelle-Bartolo-Pacheco, Géronte-don Jerónimo-errege...) gertakizunen lekutzea (Bray, fablieu aipatuan. Paris, Molière-ren testuan. Miraflores, Moratín-enean. Elissamburu-renean, berriz, Madril...) eta gertakizun beraren itxura ere aldatu egin dira (oihasko hezurra, maitasun ixorio batek hartaratutako mututasunaren orde...). Baina, oinarrian eta gaiaren iturrien hauziari dagonionez behintzat, ixorioak eta themek bere horretan jarraitzen dute, ez da Elissambururengandik Molièrrengana deus handirik eta garrantzizkorik aldatu, baldin ez bada neskaen gaitzaren atzetik maitasun ixorio bat zegoela Molièrenean, gaisotasunaren amodiozko arrazoiak desagertu direla Elissambururen testuan.

Garbi dago Elissambururen bertsoa daukala Mayi Ariztiak 1935 urteko “Eusko Folklore” aldizkarian “Eskurideko jauregia” izeneko ipuin laburra argitaratu zuenean: doña Resurrección eta don Pacheco dute izena senar-emazteak, “Eskurialen” gertatzen da gatazka labur-tua... Halatsu Felix Bilbaok ere “Ipuin-barreka” bilduman argitaratu zuen gai bereko bertso luzearekin.

Armanak Uskara

Bada, ordea, besterik. Usua izan da euskaldunen artean almanakeen (*urtekari, egutegi, pronostiku...* ere deitzen zitzairen) argitalpena. Denboraren iragarpenak, laborarientzat interes-garriak diren berriak, anekdota eta antzeko ixorioak... biltzen zituzten inpresu txiki, funtzional hauetan eta baserriz baserri saltzen. Lehendabizikoa, 1571 urtekoa dugu, Leizarragaren “Kalendarera” famatua... Harrez geroz, izan dira gehiago, aldizka argitaratzen zirenak.

Tradizio horretan kokatu behar dugu gaurko honetarako interesatzen zaigun “Armanak Uskara edo Ziberouko Egunaria” izenekoak. Hogeita zazpi bat urtetako bizia (1886-1913) izan zuen Parisen urtero argitaratzen zen almanaka honek. Etxean ditudan hiru alek (1903-1904-1905 urtekoek) egitura berdina dute: Foiletoaren lehen orrialdeetan eta azkenekoetan, kalendarioa, tenporak, feria egunak eta antzekoak agertzen zaizkigu. Eta horien artean, zenbait sail desberdin: Besteak beste, kristau bizitzari buruzko berriak, laborariei beren lanean egokiak izango zaizkien aholkuak eta pasadizo zein anekdotak.

1903 urteko alean dager esku artean darabilgun themari buruzko bertsio berri bat, anonimoa, "Ouste gabetarik bedezi" tituluaz. Traskribatu egingo dut, bere hartan, irakurleari interesatuko zaiolakoan:

"Diala zoubait mente bazen Parisen gizon ofiziale tchipibat. Emaztia artetarik joiten zian eta borthizki, ezpeitzen segurki eder; emaztia ere etzen malezia gabe, erran behar da. Ountsa nahi zatekian mendekatu, bena etchakin noula. Egunbatez jakinturik erregeren alhaba biziaren galtzeko mene handitan zela, arrari ezur chorrotchbat trebes sarthurik zuntzurrian, houna zer gogoan eroan zian egitia emazteki ezpirtu gaichto harek. Badoo arren khorteko aintzin darietarik baten gana, eta erraiten dero:

—Jaona, entzun dit erregeren alhaba zer erriskutan den eta bedezi barberrek ezteroiela deusere egin; badit senharbat bere lanetik bizidena, ezpeita Parisen ez eta unguru hoietan hora bezain bedezi edo barber beniadunik. Erraiten deizut, bena segretian, ihourk sendotzekoz, harek eginen diala. Bena ez othoi salha nik holakorik errandudala, hil beinin dio; ezi hugun dizu barbergoa, eta hari hersatzen diren guzier osagarri arentako, ihardesten du eztela ez bedezi, ez barber. Joka eta ountsa banbatuz behar da bortchatu erremedio egitera, bestela ukhatzen dizu bere jakitatia, zinez tematzen delarik.

Hola ountsa eskolaturik khorteko aitzindariak, erregereki hitzartu, eta igorten deio gizontoari noula haren arrankura diren jaoregian.

Ofizialia jakin gabetarik zerentako deitzen dien erregeren aitziniala, eta halere gothorrik hara badoo, zouñeko ederrenak ezarririk. Jaoregi sar eta buruz jiten zaio gorago erran den aitzindaria, erraiten derona:

—Hounki jin zirade, adichkidia.

Bestiak:

—Zerda arren zien zerbutchuko.

Jaonak:

—Houna zergatik erakharri zutiegun; erregeren alhaba hiltzeko mene handitan duzu, eta beitakigu bedezi abillbat zirela haren sendotzera deithu zutugu.

Gizonak ordian arrapostu:

—Jaona enuzu, ni, den gutienik bedezi, ofiziale deuz eztakianbat nuzu.

Jaonak aitzina:

—Hots, hots, elhe guti eta egizu zoure abilezian ahal duzuna.

Gizouna berriz:

—Bena sinhets nezazu enuzu ni batere bedezi

Jaonak ordian:

—A! Hola eia! Badakizugu zer duzun ments galhatzen deizienaren egin erazteko.

Bazutian hullanian bi gizon makhila bederareki; kheñu egiten deu eta erraiten:

—Ountsa phanpa ezazu gero, obedi dezan.

Gizonek maniaaren arao burutik behera, ari zaitzo ofizialari, eta hora, orroa eta orroa. Berriz jaonak derraio:

—Orai phuru eginen duzu galhatzen deiziena.

Bena ofizialiak arra ihardesten deo:

—Bena, jaona, enizala ni bedezi!

Aitzindariak aitzina:

—Haotxe da gizounaren buhurria; jo ezazie orano.

Arralotzenaitzo bi gizonak eta ofizialia ezinturik, eta hoberik etzela ikhousirik oihuz eroan dezen erregeren aitziniala. Erregek ikhousiareki:

—A! Horra zira arren gizon maitia. Sendotuko othe duzia ene alhaba?

Ofizialiak orano:

—Bena, jaona, enuzu bedezi.

Erregek aitzina jozaler bururz:

—Eztuzie araoz aski jo; beharko derozie zoubait phanpako eman orano.

Bena gizonak, ezpeizen haboro jo arrankura, ihardesten iseiaturko dela; galthatzen du noun den erregeren alhaba, eta laguntzen die haren gelhara. Gogoetan ari erazi zien beharrak eta beldurrak. Erranik eizti dezen anderiareki berbera hasten da dantzan, jaozi, utzilphourdi eta zer nahi chiminokeriaren egiten. Hañ ountsa noun erregren alhaba eriz hasten zeizaio, saihetser etchekara, karkaza eta karkaza. Erriz hola arizelarik, zuntzurrian sarthu zeron ezurra kanpoat jalkhi. Eta horra noula ez ouste bedeziak sendotu zian erregeren alhaba. Erran behar da ountsa bazien ere, phakia eder ukhen ziala.”

Oraino buztan bat

Orain arteko ziberutar bertsioa ez da, izenak izen eta lekuak leku, Elissanbururenetik aldentzen. Oinarrian, fablieu, Molière eta Moratín ere antzeman daitezke orain artekoan. Baina Almanakeko bertsioak azpilak ateratzen dizkio orain artekoari. Badirudi orain arteko themari subthema bat itsatsi zaiola, ipuingintza tradizionalan sarri gertatu ohi denez, bi sustrato desberdin uztaiz, bertsio berri bat bideratzera emanda. Hona diogunaren froga gisa, orain artekoaren jarraipena. Idazle anonimoak abisatzen digunez, kontatu zaigunak “badu buztan bat”. Ea zein den:

“Goragoko istoria horrek badu oraino buztan bat. Nahi gabetarik bedezi bilhatu zen gizon gaizoak ouste zian haizu zela erregeren alhaba hañ abilki sendotu landan. Ago amiñibat, etzela segur haizu. Sendotze amiragarri horen berria zalhe hedatu zen jauregian, eta horra noun jiten zaitzon sargiala erimoltchobat othoiez sendo litzan. Erregek bere etchenkoak maite beitzutian, manhatu zian goure gizonttoa eia bere bedeziagoako jakitatia haien hounetan eman lezan. Aithortzen bazian deusere etzakiala, phanpakoak segur zutian, eta egiazzen fountsian. Oraino ere beharrak emaiten dero abillezia. Houna noula urhats gaitcho hartarik jalkhi zen. Ezar erazten du bertz handibat suian gañen dioalarik:

—Heben eritarzun gisa ountsatto bada; oro bedeziek ezin sendotuz eitziak. Bena nik behar dit erremedio usatzen eztenbat; harekin ouste du haboroak sendotuko dututala, ez padira guziak, bena zietarik batek beharko du sakrifizio handibat egin beste amorekatik; ezi nik behar dudana da jente ourina. Zien artian gutienik sendotzeko esparantcha dianak e ginen du erran delako sakrifizioa. Bertza suian ezarririk beita, berhala hourteraziko dugu. Besten aitzinian zegoen atchobati erran zeron:

—Zu zira ene oustez eri gaichkiena, zu zutugu arren bertzian hourteraziko.

Bena atchoak hain sarri:

—Ez segur, enuzu eta kasik eri eta ja sendotia.

Hori erran eta laster ihesiari emaiten du. Ofizialak berri persouna hatsbahi eta etik bati buruz:

—Bena zu zira araoz eriena, eta zu hartuko zatugu.

—Ez, ez —bestiak arrapostu—, zoure aitziniala jitiak berak chahu sendotu nizu.

Hola, hola, eta aldizka beste han hullan zirener mintzatu zen, eta orok ber arrapostia, sendoturik zirela. Haietarik gibel zirenek, gaiza konpreniturik, orok batetan zioien:

—Sendoturik nuzu, sendoturik nuzu!

Eta oroko lekha hountu zien.

Holache ouhourezki burutu zen goure ouste gabeko bedezia. Erregek jakinik oro sendo joan zirela, berriz saristatu zian”.

Zuberotar idazle anonimoak gai berri bat ezarri du, *vis komiko* haundia duena: beste zenbait eri ere senda ditzala eskatzen diote. Ofizialak badaki ezezkoa ematen badu, jipoiu egingo dutela berriro. Orduan bururatzen zaio pertzaka ur handi bat berotzea eta sendatu nahi lukeenak hara sartu behar lukeela esatea. Inork ez du onartzen eta erresumako eri guztiek aitortzen dute sendatu direla. Horrela, gure ofizialak bigarren aldiz lortuko du erregeren saria, lehenda-bizikoa alaba sendatu zuelako, bigarrena erresuma eririk gabe utzi duelako.

Bigarren gai edo thema hau ez da, ordea, Moliérenean, ez Elissambururenean agertzen. Ez da, baina, zuberotar idazle anonimoak asmatua. Erdi Aroko tradizioetik hartua da hau ere, eta

bi loreak bilduz erramu bakarra osatu du. Hala diote Euskal Baladei buruzko liburu interesgarriaren egileek:

“Testu berdinean jatorri ezberdineko balada gai bi edo gehiagok egiten duenean osatasun bakarra sortuz kutsadura sortu dela esan dezakegu...”

Komeni zaigu, honetaz ari garelarik. Ramón Menéndez Pidal-en hitzak ere gogoratzea:

“Un canto tradicional (*un texto tradicional* irakur dezagun geure asmora egokituz aipua) no tiene una forma única primera, porque no nace, es decir, no se hace tradicional en un momento preciso, sino por acción lenta de su transmisión oral...”

Aipaturiko bi kasuetan, Elissambururenean eta Almanak-eko idazle anonimoarenean, oentsatu behar da tradizio idatzia ere —frantsesa, kasu honetan— ezagutzen zutela. Hala ere, pentsatzekoa da gaiak berdin jarraitzen zuela funtzionatzen ahoz. Elissambururen kasuan, idatzi bada ere, ahozko kontakizun bezala eskaintzen digu, Piarres Adameren ahotik.

Horregatik, seguru nago ahozko tradizioan arakatuz gero, aurkituko genituzkeela antzeko adibide gehiago, nahiz euskal eremuan, nahiz mugetan.

Bego, ordea, orain artekoa apunte gisa. Ez gaitezen izan, zuberotar testuko ofiziala bezala, “haizu”, hura erregeren alaba sendatu zuela uste izanda, eta gu iturri literarioei buruzko bi pista xume hauek eman ditugulako.